


Txikizkako sektorearen salmentak % 4,9 hazi dira 2022ko lehen hiruhilekoan Euskal AEn

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, igoera % 1,2koa izan da

Eustatek landutako datuen arabera, 2022ko lehen hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmentak % 4,9 igo dira, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, egutegiaren eraginak atera ondoren eta prezio finkoetan. Sektoreko salmentak, gasolina-zerbitzuguneak kontuan hartu gabe, % 5,4 igo dira 2021eko lehen hiruhilekoaren aldean.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta urtaro-ondorioak kenduta, 2022ko lehen hiruhilekoko salmenta-indizea % 1,2 igo da.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Sektoreka, 2021eko lehen hiruhilekoaren aldean, *Gainerako produktuen* prezio finkoetako salmentak, elikadura kenduta, % 11,5 igo dira 2022ko lehen hiruhilekoan. Aldiz, termino berberetan, *Elikagaien* salmentak % 0,7 jaitsi dira, eta *Automozioko erregaia*renak % 1,8.

2021eko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, urtaro-eraginik gabeko terminoetan eta prezio finkoetan, *Elikagaien* eta *Gainerako produktuen* salmentak % 0,2 eta % 1,8 igo dira, hurrenez hurren. *Automoziorako erregaia*ren salmentek, aldiz, % 1,4 egin dute atzera.

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2022/I

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	At / At-4
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	4,9	1,2	4,9
Araba/Álava	-0,7	1,2	-0,7
Bizkaia	3,9	0,9	3,9
Gipuzkoa	9,5	1,8	9,5
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	-0,7	0,2	-0,7
Elikagaien saltoki espezializatuak	3,3	-0,1	3,3
Elikagaiak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	-2,5	0,7	-2,5
Gainerako produktuak	11,5	1,8	11,5
Pertsonaren ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	11,7	0,6	11,7
Etxearen ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	27,7	7,1	27,7
Kontsumoko beste ondasunetan espezializatutako establezimenduak	-4,5	-1,7	-4,5
Gainerako produktuak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	-8,3	-1,3	-8,3
Automoziorako erregaia	-1,8	-1,4	-1,8
INDIZE OROKORRA gasolindegirik gabe	5,4	1,1	5,4
LANGILERIA-INDIZEA			
Euskal AE	3,8	0,4	3,8

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

At/A(t4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Data 2022ko Maiatzaren 9a

Iturria: Eustat. Txikizkako Merkataritzaren Indizea (BMIt)

Elikagaien txikizkako merkataritzaren barruan, Elikagaietan, edarietan eta tabakoan espezializatutako merkataritza (hala nola fruta-dendak, harategiak, arrandegiak, etab.) % 3,3 hazi da 2021eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta. Aitzitik, Elikagaiak, edariak eta tabakoa nagusi diren txikizkako merkataritza ez-espezializatua (batez ere, supermerkatuak eta hipermerkatuak) % 2,5 murriztu da.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzan, 2022ko lehen hiruhilekoko salmenten bilakaera, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, ez da homogenea izan. Hala, Etxeko ekipamenduan espezializatutako merkataritza (besteak beste, etxetresna elektrikoak, altzariak eta telekomunikazio-ekipoak) % 27,7 igo da, eta Pertsonen ekipamenduetan espezializatutako txikizkako merkataritza % 11,7. Gainerako produktuak nagusi diren txikizkako merkataritza ez-espezializatuan eta Beste kontsumo-ondasun batzuetan espezializatuan sartutako produktuen salmentak, aldiz, % 8,3 eta % 4,5 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Lurraldeka, 2022ko lehen hiruhilekoko salmenta-indizeak urte arteko % 9,5eko igoera izan du Gipuzkoan eta % 3,9koa Bizkaian; Araban, aldiz, salmentak % 0,7 jaitsi dira urte arteko terminoetan. Hiruhileko arteko terminoetan, salmenten bilakaera positiboa izan da lurralde guztietan: % 1,8 Gipuzkoan, % 1,2 Araban eta % 0,9 Bizkaian.

Euskal AE osoan txikizkako merkataritzaren sektorean lan egiten duten pertsonen kopurua % 3,8 gehitu da 2022ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko lehen hiruhilekoaren aldean. 2021eko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, igoera % 0,4koa izan da.

INFORMAZIO OHARRA

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedientea (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jasotzen duen enpleguaren definizioari jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, lehen hiruhilekoko indizea laginaren % **97,13ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62